

Helduen praktika integratua I

Praktika klinikorako gidaliburua

Estibaliz Garcia Uriaguereca

Janire de la Torre Perez

Eneritz Bilbao Uriarte

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

CIP. Unibertsitateko Biblioteka

Bilbao Uriarte, Eneritz

Helduen praktika integratua I [Recurso electrónico]: praktika klinikorako gidaliburua / egileak, Eneritz Bilbao Uriarte, Estibaliz Garcia Uriagereka, Janire de la Torre Pérez. – Datos. – [Leioa] : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2023]. – 1 recurso en línea : PDF (114 p.). – (Unibertsitateko Eskuliburuak = Manuales Universitarios)

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-1319-540-7.

1. Odontología - Práctica. I. Garcia Uriagereka, Estibaliz, coaut. II. Torre Pérez, Janire de la, coaut.

(0.034)616.314

Helduen praktika integratua I (HPI I), Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko Odontologia graduko 5. mailan kokaturiko ikasgai praktiko-klinikoa da, hots, urte osoko derrigorrezko ikasgaia eta graduaren azken urteko praktiken parte garrantzitsua. Odontologo orokorrak gauzatu beharreko hainbat jarduera bateratzen ditu; beraz, ikasleak, bere formakuntza amaitzen duenean, gaixo bakoitza modu integralean tratatzeko gai izatea dauka helburutzat.

Ikasturteko 30 eskola-asteetan zehar, ikasleek hainbat tratamendu egingo dituzte, eta, horretarako, egin beharreko prozeduren ezagutza teorikoa ez ezik, tresna ugari erabiliko dituzte. Tresna horiek, kasu batzuetan, hainbat tratamendutarako erabiltzen dira, eta, beste batzuetan, berriz, praktika jakin baterako bakarrik. Bestalde, diagnosi egokia egin ostean, ezinbestekoa da tratamendu ezberdinen sekuentzia ezagutzea praktikak ondo antolatzeko.

Gidaliburu honen argitalpenaren xedea da UPV/EHUko Odontologia Graduko Helduen Praktika Integratua I-eko ikasleek praktika klinikoak antolatu eta modu koordinatuan burutzeko baliagarri izatea. Bertan, praktikak planifikatzeko jarraibide orokorrak eta helburuak deskribatzen dira alde batetik, eta, bestetik, ikasgaien maizago egiten diren prozedura klinikoaren sekuentzia zehazten da. Halaber, ikasleak prozeduretan erabiliko dituen materialak zerrendatu dira, beraien tratamendu bakoitzerako behar duten materiala identifikatu eta batu dezaten. Gida honek zehazten den tresneria eta materiala ikasleen eskura dago UPV/EHUko Odontologia Klinikako esterilizazio eta biltegi-zerbitzuetan. Beraz, materialen marka komertzialak Odontologia Klinikaren hornitzaileen eskuragarritasunaren menpe egongo dira. Azpimarratu beharrekoa da koaderno hau ez dela irakaskuntza-gidan gomendatutako bibliografiaren ordezkua, baizik eta ikasleentzako laguntza-tresna bat soilik.

AURKIBIDEA

Laburdurak	7
1. Praktika klinikoetarako sarrera eta oinarrizko arauak	9
2. Praktika klinikoaren antolamendua	13
2.1. Miaketa osoa eta diagnosia	13
2.2. Pronostikoa, tratamendu-plan bat edo batzuk egitea eta horren sekuentzia	16
2.3. Baimen informatua eta aurrekontuak	16
2.4. Denbora eta saioak optimizatzea	16
3. Materialen zerrenda eta ohizko tratamenduen protokolo klinikoa	19
3.1. Oinarrizko tratamendu periodontala	19
3.1.1. Materiala	19
3.1.2. Protokolo klinikoa: tratamendu-sekuentzia	27
3.2. Erauzketa	29
3.2.1. Materiala	29
3.2.2. Protokolo klinikoa: tratamendua	34
3.3. Odontologia kontserbadorea: betetze zuzena eta zeharkakoa	35
3.3.1. Materiala	35
3.3.2. Protokolo klinikoa: tratamendu-sekuentzia	44
3.4. Endodontzia (muin-kanaletako tratamendua)	49
3.4.1. Materiala	49
3.4.2. Protokolo klinikoa: tratamendu-sekuentzia	53
3.5. Protesi finkoa: koroak, zubiak eta hortz-xaflak	54
3.5.1. Materiala	54
3.5.2. Protokolo klinikoa: tratamendu-sekuentzia	65
3.6. Protesi erauzgarria	68
3.6.1. Materiala	68
3.6.2. Protokolo klinikoa: tratamendu-sekuentzia	77
3.6.3. EZko erregistroa arku gotikoaren bidez	80

3.7. Hortz zuritzea	82
3.7.1. Materiala	82
3.7.2. Protokolo kliniko: tratamendu-sekuentzia	87
4. Pazientearentzako jarraibideak eta gomendioak	89
4.1. Periodontziako pazientearentzako argibideak	89
4.2. Erauzketa edo kirurgia osteko argibideak	90
4.3. Txantxar ugari garatzen dituzten pazienteentzako gomendioak	90
4.4. Protesi erauzgarria daramaten pazienteentzako gomendioak	91
4.5. Hortz-zuriketarako gomendioak	92
5. Eranskinak	93
5.1. Odontologia klinikari buruzko araudia	93
5.2. Odontologia klinikaren COVID-19 protokoloa	104
5.3. Historia klinikoa: UPV/EHUko Odontologia Klinikaren dokumentazioa	105
5.4. Fitxa kliniko orokorra: UPV/EHUko Odontologia Klinikaren dokumentazioa	107
5.5. Periodontograma: UPV/EHUko Odontologia Klinikaren dokumentazioa	108
5.6. Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa txertatzen du: UPV/EHUko odontologia klinikako dokumentazioa	110
5.7. Aurrekontu-orria: UPV/EHUko Odontologia Klinikako dokumentazioa	112
6. Bibliografia	113

LABURDURAK

AGA:	Aho garbiketaren argibideak
BOPT:	Biologically oriented preparation technique
CBCT:	Cone beam computed tomography
EKG:	Erpineko karraka nagusia
EZ:	Erlazio zentrikoa
EDTA:	Azido etilendiaminotetraazetikoa
GKGP:	Gailur arteko kontaktu gehieneko posizioa
HPI:	Helduen praktika integratua
INR:	International normalized ratio
LBG:	Loki baraileko giltzadura
LL:	Lan luzera
LTP:	Laguntzako terapia periodontala
OPG:	Ortopantomografia
PE:	Protesi erauzgarria
RM:	Erresonantzia magnetikoa
Rx:	X izpiak
SKL:	Sustraia karrakatzea eta leuntzea
TC:	Computerized tomography

1. PRAKTIKA KLINIKOETARAKO SARRERA ETA OINARRIZKO ARAUAK

HPI I irakasgaiak UPV/EHUko Odontologia Graduako irakaskuntza-gidaliburuan deskribatutako gaitasun orokorrak eta espezifikoak ditu. Bertoko webgunean argitaratuta daude. Gaitasun orokor eta espezifiko nagusiak honako hauek dira:

- Ikaslea gai izango da hasierako judizio diagnostikoa lantzeko eta, presazko arreta odontologikoa behar izaten duten egoerekin konpetentea izanez, arrazoitutako estrategia diagnostikoa ezartzeko.
- Ikaslea gai izango da odontologiaren edozein arlo klinikoko eta paziente osasuntsu zein medikoki konprometitutakoengan diagnostikoa, pronostikoa eta tratamenduaren plangintza (hots, plangintza terapeutiko egokia) ezartzeko.
- Ikasleak esperientzia klinikoa hartuko du.

Horretarako, hainbat gaitasun espezifiko zehaztu dira eremu ezberdinetan:

- Asistentzia-komunikaziorako gaitasunak.
- Balio profesionalak txertatzea.
- Arrazoibide klinikoa, kudeaketa klinikoa eta iritzi kritikoa.

HPI I ikasgaiari esker, ikasleak bere ikaskuntzan zehar eskuratutako ezagutzak bateratuko ditu adin eta baldintza guztietako paziente helduengan, premia terapeutiko ezberdinak irakaslearen gainbegiradapean tratatuko baititu. Hau da, historia klinikoa, froga osagarriak, miaketa orokorra, diagnostikoa, ondo sekuentziatutako tratamendu-plana eta ekintza terapeutiko desberdinetan trebetasuna garatzea izango dira ikasgai honen helburuak, betiere ikaskuntza-gidaliburuan deskribatzen diren ikaskuntza-emaitzak lortzeko xedearekin.

Ikaskuntza-jarduera honek alderdi etikoak, sozialak eta psikologikoak barneratzen dituen beste gaitasun batzuk ditu; besteak beste:

- Pazientearekin eta bere senideekin komunikazio egokia mantentzea eta, aldi berean, baita graduako eta graduondoko kideekin, klinikako langileekin, laborategiko teknikariek edota osasun arloko beste profesional batzuekin ere. Pazientearekin tratu hezia, errespetuzkoa eta enpatikoa sustatzea, paziente edo egoera bakoitzarekiko hizkuntza egokituz eta moldatuz.
- Bikote eta ikasle talde bakoitzean nagusi izan behar duen laguntasun-jarrera sustatzea, elkarrekiko lankidetzaz ezarriz.
- Tutorearekin arin eta errespetuz komunikatzea.
- Laborategiko teknikariarekin eta osasun arloko beste profesionalekin idatzizko eta ahozko komunikazioa garatzea.
- Kode etiko deontologikoa eta gure pazienteen konfidentzialtasuna eskuratzea.
- Praktikarekiko jarrera positiboa aurkeztea, parte-hartze aktiboarekin eta ekimenarekin. Tratamendu baten aurreko zalantzarik edo ziurtasunik eza balego, irakaslearekin partekatzea egoera gainditu ahal izateko.
- Ikasleak autonomia eta independentzia garatzen joango dira, baita agertutako zailtasunak konpontzeko gaitasuna ere.

Praktika klinikoak odontologia klinikan egingo dira ikasturteko 30 eskola-asteetan, ikastetxeak urtero argitaratzen duen egutegiaren arabera. Ikasleak gehienez sei pertsonaz osatutako taldeetan bananduko dira; bertan, ikasturte osoan zehar mantenduko diren lan-bikoteak osatuko dituzte, irakasle arduradun baten tutoretzapean.

HPI I ikasgaiaren kredituak praktikoak dira soilik, eta asistentzia nahitaezkoa da; hori horrela, faltak justifikatu egin beharko dira.

HPI I-ean ikasleei esleituko zaizkien eta tratatuko diren pazienteak beste ikasgaietatik igorriak edo berriak izango dira. Aldi berean, lehendabiziko hitzorduan miaketa orokorra egin ostean, pazienteari deribazio-orri bat egin dakioke graduako beste ikasgai batean edo gradu osteko ikasgai espezifikoetan tratatu ahal izateko. Irakasleak sinatuko du beti ikasgai hartzailearen deribazio-orria.

Ikasleek odontologia klinikan araudi orokorra ezagutu eta betetzeko beharra daukate. Araudi hori ikasleen esku dago (1. eranskina), eta puntu hauek azpimarratzekoak dira bertan:

- Osasun-arropa egokia nahitaez erabiltzea; pijama eta oinetako sanitarioak. Ilea bilduta eta txano batez estalita izango da. Unean-unean indarrean den protokoloari egokitutako babes pertsonaleko materiala erabili beharko da.
- Eskuetako higiena funtsezkoa da, bai tratamenduen aurretik bai ondoren, larruazaleko zauririk agerian gelditu barik.
- Bakoitzaren gauza pertsonalak armairuetan gordeta gelditu behar dira; hots, klinika-eremu praktiketarako materiala bakarrik egon daiteke.
- Klinika barruan debekaturik dago jatea edo edatea.

- Lan-boxa betiere garbi eta txukun egongo da. Praktika bakoitzaren ostean, hortz-besaulkia garbitu eta desinfektatu egingo da.
- Biltegitik edota esterilizaziotik datorren material suntsikor eta ez-suntsikorra prest eduki behar da aldeztu aurretik, eta tratamenduaren ostean dagokion lekura itzuli beharko da.
- Ikasleak kontuz eta ardurarekin ibiliko dira materialarekin.
- Kutsatutako materialarekin kontu handia izan behar da; suntsikorra bada, dagokion edukiontzietan utzi behar da, eta instrumentala bada, esterilizazio saileko oharpenen arabera batu eta itzuliko da.
- Istripuren bat gertatzen bada, bereziki kutsatutako materialarekin, irakasleei jakinaraziko zaie, eta haiek adieraziko diete zer prozedura jarraitu behar duten.
- Klinikaren barruan, lanerako giro egokia mantendu behar da; oihu egitea, ozen hitz egitea edo korrika egitea saihestu egingo da.
- Nahitaezkoa da konfidentzialtasuna mantentzea gure pazienteen datu eta tratamenduekin.
- Ikasleek tutorearen adierazpenak jarraitu beharko dituzte uneoro.
- Paziente bakoitzari harrerara lagunduko zaio administrazio-izapideetarako.
- Material komuna duen sei kaxoidun armairu bat dago klinika bakoitzeko, eta, beraz, ordenatuta mantendu behar da.
- Kanpoko laborategi bati eskatutako protesi-lanak klinika bakoitzak duen armairu batean jasoko dira. Laborategira bidaltzeko dokumentu bat beteko da. Dokumentu horrek irakasleen oniritzia izan beharko du, eta paziente bakoitzari jakinaraziko zaio protesiaren zentzuzkoaren % 50a ordaindu behar duela lehenengo inprimakia hartzean.

HPI I irakasgaiaren praktika klinikorako oinarrizko araudia:

- Praktiken ordutegia 9:00etan hasi eta 14:00etan amaituko da. Lehenengo 15 minutuetan goizeko praktika antolatuko da; hau da, boxa eta erabili beharreko materiala prestatuko dira, egin beharreko jardueraren berri emango zaie irakasleei, eta zalantzak argituko dira.
- Funtsezkoa da praktika amaitu arte gelditzea; hala ere, pazienteak huts egiten badu edo lehenago amaitzen bada, irakasleei baimena eskatuko zaie alde egiteko.
- Pazientea klinikara sartu aurretik, beharrezkoa da haren historia klinikoa ezagutzea; eguneratuta dagoen eta paziente medikoki konprometituta dagoen jakin behar da. Halaber, tutoreari datu garrantzitsuak jakinaraziko zaizkio, baldin badaude.
- Ikasleek aldeztu aurretik errepasatuko dituzte egin beharreko ekintza terapeutiko bakoitzetarako beharrezkoak diren ezagutza teorikoak eta materiala.
- Pazienteari harrera egin aurretik, beharrezko edo aurreikus daitezkeen tresneria eta material guztia dugula egiaztatuko da, eta ondo kokatuta eta antolatuta dagoela ziurtatuko da.
- Tratamendua amaitu ondoren, irakasleak tratamenduaren oniritzia sinatuko du, eta ikasleak harrerara lagunduko dio pazienteari.
- Komeni da pazienteari gogoraraztea, hurrengo hitzordura joaterik ez badu, aldeztu aurretik jakinarazi behar duela; izan ere, huts egiten badu, ikasteko denbora garrantzitsua galduko dugu.


- Ikasleek Odontologia Klinikaren programa informatikoan (Alladium) pazientearen hitzordua sartuko dute; eguna, ordua eta paziente berriaren beharra ere adieraziko dituzte, betiere administrazioko langileek fitxak prestatzeko edo paziente berriari hitzordua emateko behar besteko aurrerapenarekin.
- Komeni da tratamenduak 13:30ean amaitzeko planifikatuta izatea, pazienteari harrerara lagundu ondoren, hurrengo 30 minutuetan boxa jaso eta materiala dagokion lekura eraman ahal izateko.
- Egunero, praktika amaitzean, egindakoa errepasatu behar da, zailtasunik edo zalantzarik izan den azalduz. Hurrengo praktikaren tratamendu-plana erakutsiko zaio irakasleari, denborak antolatzeko eta argitu beharreko zailtasun posibleak edo indartu beharreko teoria aurreikusteko; horrez gain, beharrezko material guztia erabilgarri dagoela ziurtatuko da.
- Klinika utzi aurretik, dena garbi eta jasota geratu dela egiaztatuko da. Paziente bakoitzaren fitxak harrerara eramango dira, eta ez dira klinikan ahaztuko. Era berean, ikasleek ordenagailua, erradiologiako ekipoak, lan-unitateak eta klinikako argiak itzalita daudela ziurtatuko dute.
- Ikasleek beren praktika-koadernoak beteko dute, egin dituzten tratamenduak adierazita, eta irakasleari aurkeztuko diote, sina dezan. Koaderno hori azken egunean emango zaie irakasle arduradunei.

2. PRAKTIKA KLINIKOAREN ANTOLAMENDUA

2.1. MIAKETA OSOA ETA DIAGNOSIA

HPI I-eko praktiketan tratatuko diren pazienteei, graduako edo graduondoko beste irakasgai batzuetatik bidalitako pazienteei, miaketa osoa, diagnosia eta tratamendu-plana egingo zaie, irakasgai horietan aldeztu aurretik miatu diren kontuan izan gabe. Protokolo honen arabera lan egingo da:

- Pazienteen harrera: galdetegia betetzea, tenperatura egiaztatzea eta babes-neurriak hartzea, COVID-19aren aurkako protokoloen arabera, pandemiak irauten duen bitartean (2. eranskina).
- Historia klinikoa betetzea edo eguneratzea (3. eranskina). Konpromiso medikoak eta horiek tratamenduan duten inplikazioa identifikatzea.
- Buruaren, lepoaren, muskuluen eta loki-baraileko giltzaduraren (LBG) oinarritzko miaketa. Dagozkion miaketa-fitxak betetzea. Ustezko patologiak identifikatzea.
- Aho-barrunbe osoaren miaketa; ezpainak, mukosa-yugala, mihia, aho-zorua, ahosabaia, listu-guruin handiak, hortzoia, orofaringea, masailezurak, hortz-miaketa eta miaketa periodontala. Dagozkion miaketa-fitxak betetzea (4. eta 5. eranskinak) eta ustezko patologiak eta diagnosi diferentzialak identifikatzea.
- Froga diagnostiko osagarriak egitea, Odontologia Kliniketan bertan egin daitezkeenak, aldeztu aurretik irakasleen eta pazientearen baimenarekin, froga horiek inbaditzaileak badira. Ustezko patologiak identifikatzea:
 1. Erradiologia- eta irudi-frogak: ortopantomografia (OPG) (1. irudia), erpinondoko erradiografia (Rx) (2. irudia), haginkada-hegalaren Rx-a (3. irudia), serie erradiografiko osoa (4. irudia), sorta konikoaren tomografia konputerizatua (CBCT) (5. irudia).



1. irudia: OPG




2. irudia: erpinondoko Rx



3. irudia: haginkada-hegalaren Rx

2. PRAKTIKA KLINIKOAREN ANTOLAMENDUA



4. irudia: serie erradiografiko osoa



5. irudia: CBCT

2. Bizitasun-froga.
 3. Perkusio-froga.
 4. Haztatu.
 5. Biopsia, laginak hartu karrakatzearen bidez, eta abar.
- Premiazko patologia ezagutu.
Odontologia Kliniketan bertan egin ezin daitezkeen froga osagarriak eskatu; hala nola:
 1. Laborategiko froga analitikoak eta azterketa zitologiko eta histopatologikoak.
 2. Irudi-froga jakin batzuk: ordenagailu bidezko tomografia (TC), erresonantzia magnetikoa (RM), ekografiak.
 - Kasu bakoitzeko behin betiko diagnostikoa egin.
 - Pazienteak duen patologia ezin bada HPI I irakasgaien diagnostikatu edo tratatu, pazienteak graduoko irakasgai espezifikoetara bideratuko da (ahoko patologia eta medikuntza, buruko eta aurpegiko mina eta loki-baraileko nahasmenduak, ahoko kirurgia), edo dagozkion graduondoko irakasgaietara. Beharrezkoa bada, tratamendu implantologiko bat edo tratamendu periodontal konplexu bat bideratuko da dagokion graduondokora. Ortodontzia-tratamendu bat baloratu behar izanez gero, dagokion graduoko irakasgaiari jakinaraziko zaio.

- Tutorearen erabakia izango da pazienteak graduako edo graduondoko irakasgai espezifikoetara bideratzea.

2.2. PRONOSTIKOA, TRATAMENDU-PLAN BAT EDO BATZUK EGITEA, ETA HORREN SEKUENTZIA

- Ikasle-bikoteak kasuaren pronostikoa eta tratamendu-plana edo planak ezarriko ditu. Ondoren, hori guztia tutoreari aurkeztuko dio, eztabaida dezaten. Bestalde, horren sekuentzia bateratuko da. Ahal bada, tratamendua ikasturte barruan amaitzea izango da helburua.
- HPI I-ean tratatu ezin diren kasu konplexuak, halaber, irakasleekin azaldu eta eztabaidatuko dira, eta haiek adieraziko dute zein den kasurako tratamendurik egokiena.
- Ondoren, pazienteari egoera eta ahoaren pronostikoa aurkeztuko zaizkio.
- Pazienteari tratamendu-aukerak planteatuko zaizkio.

2.3. BAIMEN INFORMATUA ETA AURREKONTUA(K)

- Ikasleek datuen babesari buruzko oinarrizko informazio-klausula aurkeztuko dute (6. eranskina).
- Ikasleek baimen informatuaren alderdi garrantzitsuenak azalduko dituzte, egin beharreko tratamenduen arabera.
- Aurrekontuak emango dira (7. eranskina), eta ordaintzeko modua azalduko da.

2.4. DENBORA ETA SAIOAK OPTIMIZATZEA

- Tratamendu integratuak ikasleei eta pazienteari gehien komeni zaien moduan antolatzen ahaleginduko da ikaslea, paziente mota bakoitzarentzat iraupen egokiko bisita kopurua minimizatzen saiatuz eta tratamendua ikasturtean zehar amaitzen saiatuz.
- Tratamendu konplexuen kasuan, komeni da beti gauzatzeko errazenetik hastea, konfiantza lortzeko. Adibidez, pazienteak kanal kopuru desberdina duten hortzen tratamendua behar badu, lehenik kanal bateko tratamenduarekin hasiko gara, gero bi kanaleko tratamenduarekin, eta, azkenik, hiru kanaleko tratamenduarekin. Betetzei dagokienez, lehenik txikiak eta I motakoak, gero II eta V klaseak, eta, azkenik, aurrealdeko berreraikuntza edo estetika handidunak.
- Gainera, beharrezkoa izango da tratamendua sekuentziaz, lehenik lehenik jarduerak taldeka ezarriz.


Tratamendu bakoitzak dituen zailtasunez eta denboraren antolaketa egokia egiteko ditugun mugez jabetu behar dugu. Ez dugu denbora bera beharko detartrajea egiteko edo kanalak tratatzeko. Zalantzarik izanez gero, irakasleei galdetuko zaie. Erreferentzia orokor gisa, tratamendu-denbora hauek hartuko ditugu:

- Historia klinikoa betetzea, miaketa osoa, proba osagarriak, azterketa-ereduak, diagnostikoa, tratamendu-plana eta aurrekontua: 2 ordu.

2. PRAKTIKA KLINIKOAREN ANTOLAMENDUA

- Garbiketa, hortzak leuntzea eta ahoko higieua irakastea (OHI): 1 ordu.
- Karrakatzea eta lisatze erradikularra (RAR): 1 ordu.
- Betetze simplea: 1 ordu.
- Berreraikuntza: 2 ordu.
- Erauzketa simplea: 1 ordu.
- Erauzketa zaila: 2 ordu.
- Kanal baten tratamendua: 2 ordu/hainbat saio.
- Hainbat kanalen tratamendua: 3 ordu/ hainbat saio.
- Biopsia: 1 ordu.

Odontograma hau duen kasu baterako saioen tratamendu- eta antolamendu-plan posibleen adibidea (6. irudia):



6. irudia: eredu baten odontograma

A) 1.go tratamendu-plana eta sekuentzia:

- Periodontograma, sustraiak karrakatzea eta lisatzea (SKL), plakaren kontrola eta IHO.
- Saioen araberako exodontziak SKL saioetako batean ere egin daitezke. Exodontziak sortutako defektua baloratzea, zentzuzko orbaintze-aldia ezartzeko edo etorkizuneko protesiaren gainditzea baloratzeko.
- Betetzeak edo kanalen tratamendua. Saioren batean, protesi erauzgarrietarako (PE) eta banakako azpilak egiteko azterketa-ereduetarako inprimakiak hartuko dira. Betetzeek protesia daramaten eremuetan eraginik ez badute, PE probetan bertan egin daitezke.
- PE, metal-froga, hortz-froga eta kolokaziorako behin betiko ereduak.
- Protesia berrikustea eta kontrol periodontal berria.

B) 2. tratamendu-plana eta sekuentzia:

- Periodontograma, SKL, IHO plakaren kontrola eta azterketa-ereduak.
- Atzeko hortzen betetzeak eta exodontzia. Ereduak eta banakako azpilaren eskaera.
- Betetzea edo kanalen tratamendua eta betetzeak amaitzean, behin betiko ereduak. Betetzeek protesia daramaten eremuetan eraginik ez badute, PE probetan bertan egin daitezke.
- Oinarrizko plantxa, arrabola eta hortz-froga.
- Aurreko hortzetako exodontziak jartzea eta berehalako protesiak.

C) 3. tratamendu-plana eta sekuentzia:

- Tartrektomia, IHO eta SKL, eta kirurgia periodontaletarako graduondokora bideratzea, pazienteak inplanteen bidez hortzik gabeko espazioak berreskuratu nahi dituelako.
- Saio bakoitzean egin daitezkeen betetzeak.

D) 4. tratamendu-plana eta sekuentzia:

- Exodontziak.
- Periodontograma, SKL, plakaren kontrola eta IHO. SKL bat egitea betetze sinpleren batekin konbina daiteke.
- Betetzeak edo hodian tratamendua. Azken saioan, protesi finkoetarako azterketa-ereduak hartuko dira. Argizari diagnostikoa/behin-behinekoak eskatzea.
- Zizelkatzea eta behin-behineko protesiak egitea silikonazko giltzen bidez, edo labo-ategiko behin-behineko protesiak egokitzea, edo ereduak egitea behin-behineko edo behin betiko labo-ategiko protesiak egiteko (egoeraren arabera).
- Exodontziak orbaintzeko itxaronaldia eta kontrol periodontala.
- Protesi finkoak egitea, birzizelkatzea eta ereduak, kofia-froga, bizkotxo-froga, zementazioa.

3. MATERIALEN ZERRENDA ETA OHIZKO TRATAMENDUEN PROTOKOLO KLINIKOA

3.1. OINARRIZKO TRATAMENDU PERIODONTALA


3.1.1. Materiala

1. Miaketa-kita (ispilua + miaketa-zunda eta zunda periodontala) (7. irudia).




7. irudia: ispilua eta zundak

2. Adur-zapia, xurgagailua, ur-aire eiektorea, betaurrekoak, oinetako estalkiak, txanoa eta hidrogeno peroxidoko irakuzketa (8. irudia).



8. irudia: erabili eta botatzeko kita

3. Rx plaka eta aurreko eta atzeko hortzen paralelogilea (9. irudia).



9. irudia: paralelogileak eta Rx plakak

4. OPG (5. irudia).
5. Periodontograma bete:
 - Periodontograma-orria (5. eranskina).
 - Zunda periodontala eta ispilua (7. irudia).
 - Boligrafo urdina eta gorria.
 - Plaka bakterianoa errebelatzeko pastilla.
6. LTPa egiteko materiala (laguntzako terapia periodontala) (10. irudia):
 - Plaka bakterianoa errebelatzeko pastilla.
 - Fantoma, hortzetako eskuila, haria, hortzarteko eskuilak eta ispilu handia pazientearentzat.



10. irudia: LTPrako materiala

7. Garbiketa gauzatzeko materiala (11. irudia):
 - Ultrasoinua.
 - Ultrasoinuzko punta.
 - Igitai-itxurako karrakagailua.
 - Kontra-angelua.
 - Leuntzeko marrusketa edo kopa.
 - Leuntzeko orea.
 - Gasa esterilak.




11. irudia: garbiketarako materiala

8. SKLa egiteko materiala (sustraia karrakatzea eta leuntzea):

a) Anestesia (12. irudia):

- Anestesia topikoa, kotoi-bolatxoa eta pintzak.
- Xurgatzeko xiringa eta intraligamentosoak.
- Anestesiarako karpulea (hodi-uzkurtzailearekin edo barik, historia klinikoaren arabera).
- Orratzak: tronkularra, periapikala eta intraligamentosoak.



12. irudia: anestesiarako materiala

b) SKL:

- Gasa esterilak
- Gracey kuretak (13. irudia):
 - 1/2, 3/4 eta 5/6 (ebakortzak eta betortzak).
 - 7/8, 9/10 (haginaurrekoak eta haginaren masailaldeko eta mihialdeko aldeak)
 - 11/12 eta 13/14 (haginaurrekoak eta haginaren hurbileko eta urruneko aldeak)
- Kureta unibertsalak: Columbia 4R/4L eta 13/14 (14. irudia)



13. irudia: Gracey kuretak



14. irudia: kureta unibertsalak

9. Gingibektomiarako materiala (15. irudia):
- Anestesia (12. irudia).
 - Zunda periodontala.
 - Bard-Parker mota, borobila edota bisturi-kirten angulatua.
 - Bisturi 15, 11, 12B edo mikrokirurgiarako orria.
 - Orbanen bisturia.
 - Adson-en pintza horzduna.
 - Kuretak.
 - Abiadura baxuko tresna birakaria, tungsteno karburozko bola-fresa.
 - Apositu kirurgikoa (16. irudia), lauza eta espatula.



15. irudia: gingibektomiarako materiala



16. irudia: apositu kirurgikoa

10. Koroaren luzapenerako materiala (17. irudia):

- Anestesia (12. irudia).
- Zunda periodontala eta ispilua.
- Gasa esterilak.
- Bard-Parker mota, borobila edota bisturi-kirten angulatua.
- Bisturi 15, 11, 12B edo mikrokirurgiarako orria.
- Molt-en periostotomoa.
- Adson-en pintza horzduna.
- Gracey kuretak eta unibertsalak.
- Karrakagailua.
- Ostektomiarako kontra-angelua fresa borobilarekin eta Arkansas harriko fresa.
- Orratz-etxea.
- Moskito-pintza.
- Jostura berxurgagarria eta ez-berxurgagarria, triangelu-formako sekzioko orratz alde-rantzikatuarekin (2/3, C12 – C14).
- Puntuak mozteko artaziak.



17. irudia: koroaren luzapenerako materiala

11. Laguntzako terapia periodontalarako (LTP) materiala (18. irudia):

- Plaka bakterianoa errebelatzeko pastilla.
- Gasa esterilak.
- Anestesia (beharrezkoa izanez gero).
- Ultrasonuak eta ultrasonurako puntak.
- Gracey kuretak eta unibertsalak.
- Kontra-angelua eta leuntzeko marrusketa edo kopa.
- Leuntzeko orea.



18. irudia: LTPrako materiala

12. Jostura-puntuak kentzeko materiala (19. irudia):

- Pintzak.
- Artaziak.
- Gasa esterilak.



19. irudia: jostura kentzeko materiala

3.1.2. Protokolo klinikoa: tratamendu-sekuentzia

Tratamendu periodontala larrialdikoa ez den edozein beste tratamendu baino lehenago burutu behar da; betetzeak, errehabilitazio protesikoak edota inplantologia baino lehenago, alegia. Beraz, lehentasunezkoak diren minarekin edo infekzioarekin gertatzen diren egoerak tratatu ondoren, tratamendu periodontalarekin hasiko gara.

Ahalik eta hitzordu gutxien erabiltzeko, koadrantea egingo dugu lan, anesthesiarekin, eta hortzoiaren gaineko zein lertzo azpi-gingibala kanporatuko dugu (garbiketa eta SKL).

Anestesia tronkularra beheko ebakortzen errefortzuarekin erabiliko dugu baraileko koadranteetan; goiko koadranteetan, berriz, anestesia periapikala erabiliko dugu.

1. HITZORDUA: DIAGNOSTIKO PERIODONTALA, PRONOSTIKOA ETA TRATAMENDU-PLANA

1. Miaketa periodontala eta periodontograma bete (5. eranskina): zundaketa sakonera, mugikortasuna, hortzoiaren ertzaren kokapena (atzerapena edo handiagotze gingibala), furka-lesioak, plaka eta odoljarioaren indizeak.

2. Serie erradiografikoa (*4. irudia*): 14 erradiografia periapikalak (8 Rx handiak haginaurrekoetan eta hagineta, eta 6 Rx txikiak aurreko hortzetan) eta 2 haginkada hegalak. Rx guztiak paralelogile kokatzaileekin egingo dira (*9. irudia*).
3. Hortz bakoitzeko diagnostikoa eta pronostikoa zein orokorra ezarri.
4. Pronostiko txarra daukan hortzik balego eta erauzketa egin behar bada, kontuan izan tratamendu-plan orokorrean.
5. Tratamendu-plan periodontala ezarri.

2. HITZORDUA: TERAPIA PERIODONTAL EZ-KIRURGIKOAREN HASIERA

1. Odontologia Klinikako baimen informatua bete.
2. AGA eta motibazioa.
3. Plaka-kontrola.
4. Koadrante baten anestesia: garbiketa eta SKL. Hortzoiaren gaineko gainazalak leundu, eta, hipersentikortasunaren arabera, fluor topikoko aplikazioak baloratu.

3., 4. eta 5. HITZORDUAK: TERAPIA PERIODONTAL EZ-KIRURGIKOAREN JARRAIPENA

Irakaslearen irizpidearen ganorara hitzorduak gehituko dira, SKLa birpasatu edota sestanteka landu behar bada adibidez, kasuaren zailtasunaren arabera.

1. Plaka-kontrola eta AGAren errefortzua, behar balitz.
2. Dagokion koadrantearen anestesia: garbiketa eta koadrante horren SKLa. Hortzoiaren gaineko gainazalak leuntzen amaitu.
3. Hipersentikortasunaren arabera, fluor topikoko aplikazioak baloratu.
4. Pazientearentzako argibideak eman (4.1 atala begiratu).

4 edo 6 ASTERA BIRBALIOZTATU

1. Periodontograma berria bete (5. eranskina).
2. Aurreko periodontogramako datuekin alderatu, eta tratamendu kirurgikoa adierazten duten sintoma, zeinu edota ezaugarri anatomikorik dagoen baloratu. Kasu horretan, periodontziako graduondokora bideratuko da.

Kasua tratamendu periodontal ez-kirurgikoarekin konpondu bada, pazientearen baldintzen eta arrisku-faktoreen arabera moldatuko ditugu LTParen hitzorduak.

LAGUNTZAKO TERAPIA PERIODONTALA

1. Periodontograma berria bete (5. eranskina), eta serie erradiografikoa behar izanez gero ere bai (*4. irudia*).
2. Plaka-kontrola.
3. AGA eta motibazioa, hala badagokio.

4. Garbiketa eta behar duten gunetako SKLa, betiere periodontograman aurkitutako beharren arabera.
5. Hortz-gainazalak leundu, eta, behar izanez gero, fluor topikoa aplikatu.
6. Paziente periodontalerako argibideak (4.1. atala).

3.2. ERAUZKETA

3.2.1. Materiala

1. Miaketa-kita (ispilua + zundak) (7. irudia).
Adur-zapia, xurgagailua, ur-aire eiektorea, betaurrekoak, oinetako-estalkiak, txanoa eta hidrogeno peroxidoko irakuzketa (8. irudia).
2. Anestesia (12. irudia):
 - Anestesia topikoa, kotoi-bolatxoa eta pintzak.
 - Xurgatzeko xiringa eta intraligamentosoa.
 - Anestesiarako karpulea (hodi-uzkurtzailearekin edo barik, historia klinikoaren arabera).
 - Orratzak: tronkularra, periapikala eta intraligamentosoa.
3. Rx plaka eta aurreko eta atzeko hortzen paralelogilea (9. irudia).
4. Aldez aurretik egindako erradiografia panoramikoa (OPG) (1. irudia) edo periapikala (2. irudia) edo CBCTa beharrezkoa (5. irudia).
5. Luxadoreak eta erauzgailuak: Winter, Pott, zuzena eta konkorduna (20. eta 21. irudiak).



20. irudia: erauzgailu eta luxadore taldea



21. irudia: Pott erauzgailuak

6. Goiko masailhezurreko matxardak (22. irudia):

- Erdiko eta alboko ebakortzak eta betortzak: goiko aurreko matxarda zuzena eta uni-bertsala.
- Goiko haginaurrekoak.
- Goiko ezkerreko eta eskuineko haginak.
- Goiko hirugarren haginekoak.
- Goi-erroetarakoa.



22. irudia: goiko matxardak

7. Baraileko matxardak (23. irudia):

- Erdiko eta alboko ebakortzak eta betortzak: beheko aurreko matxarda.
- Beheko haginaurrekoak.
- Beheko haginak.
- Behi-adarren eta loro-mokoaren formakoak (hondatuta dauden haginentzat) eta aurreko ekintzako matxarda.
- Beheko hirugarren haginekoa.
- Beheko erroak.



23. irudia: beheko matxardak

8. Karrakatzeko goilara (24. irudia).
9. Adson-en pintza horzduna (24. irudia).
10. Banagailua (24. irudia).
11. Gasak (24. irudia).
12. Gubia (24. irudia).



24. irudia: erauzketarako material laguntzailea

13. Zintzilikarioa diseinatu behar bada (25. irudia):

- Bard-Parkerren bisturi-kirtena.
- 15. bisturi-orria.
- Molt-en periostotomoa.

14. Osteotomia edo odontosekzioa beharrezkoa balitz (25. irudia):

- Biragailuak.
- 8 zenbakiko fresa borobila (osteotomia).
- Odontosekzioa egiteko turbinarako Zekrya fresa.



25. irudia: zintzilikarioaren diseinua, osteotomía eta odontosekzioa

15. Josturarako materiala (26. irudia):


- Orratz-etxea.
- Moskito-pintza.
- Horzdun pintza.
- Jostura birxurgagarria eta ez-birxurgagarria, triangelu-formako sekzioko orratz alde-rantzikatuarekin.
- Artaziak.

3. MATERIALEN ZERRENDA ETA OHIZKO TRATAMENDUEN PROTOKOLO KLINIKOA



26. irudia: josturarako materiala

16. Gasa esterilak, pintzak eta material hemostatikoa (27. irudia): kolagenozko belakia, azido tranexamikoa (28. irudia).



27. irudia: hemostasiarako materiala



28. irudia: azido tranexamikoa

3.2.2. Protokolo klinikoa: tratamendua

Tutoreak erabakiko du graduko Aho-kirurgia ikasgaira bidaltzea erauzketaren zailtasunaren arabera.

1. Pazienteak Odontologia Klinikako baimen informatuak sinatuko ditu.
2. Lehendabizi historia klinikoa begiratu behar da (3. eranskina): aurrekari patologikoak eta ohiko medikazioa. Arreta berezia jarri behar zaio erauzketa-egunean profilaxi antibiotikoa egin beharri; hala nola, paziente antikoagulatu edo antiagregatu bakoitzaren maneiu bereziari. Bere mediku espezialistarekin interkontsulta egin daiteke, kasuaren arabera.
3. Egungo atera beharreko piezaren OPG, CBCT edo Rx periapikala bistaratu, ezaugarri anatomikoak aztertzeko, zailtasuna baloratzeko eta izan daitezkeen konplikazioak aurreikusteko.
4. Aterako dugun hortzaren anestesia:
 - Anestesia topikoa.
 - Aurreko goiko hortz taldea: aurreko nerbio albeolarraren anestesia infiltratiboa eta nasopalatinoaren anestesia.
 - Goiko haginaurrekoak: goiko nerbio albeolar ertainaren anestesia infiltratiboa eta aurreko nerbio palatinoaren anestesia infiltratiboa.
 - Goiko haginak: goiko atzeko nerbio albeolarraren anestesia infiltratiboa eta aurreko nerbio palatinoaren anestesia infiltratiboa.
 - Beheko haginaurrekoak eta haginak: beheko nerbio albeolarraren anestesia tronkularra, nerbio linguala eta bukala.
 - Beheko ebakortzak eta betortzak: ebakortzen nerbioaren edo nerbio mentoniarraren anestesia infiltratiboa eta mihi-nerbioaren anestesia.
5. Hortza lokatu, dagokion erauzgailuarekin.
6. Hortza atera, dagokion matxardarekin.
7. Erauzketa bitartean koroa hautsiko balitz edota hasieratik koroaren hondarra matxardarekin oratuezina bada, odontosekzioa egingo da erroak banaka erauzteko asmoarekin.
8. Erauzketa ostean erro bat geldituko balitz, tutoreak erabakiko du erroen matxardarekin atera daitezkeen edo zintzilikarioa diseinatu eta altxatu behar den; baita ostektomia egitea beharrezkoa den ere.
9. Albeoloa karrakatu.
10. Albeoloa birmoldatu (behar izanez gero).
11. Jostura eta kolagenozko belakiarekin edota azido tranexamikoarekin, hemostasia behar balitz, eta gasa esteril bidezko konpresioa.
12. Pazienteari erauzketa osteko argibideak azaldu, eta idatzita eman (ikus 4.2 atala).

3.3. ODONTOLOGIA KONTSERBADOREA: BETETZE ZUZENA ETA ZEHARKAKOA

3.3.1. Materiala

1. Miaketa-kita (ispilua + zundak) (7. irudia).
2. Adur-zapia, xurgagailua, ur-aire eiektorea, betaurrekoak, oinetako estalkiak, txanoa eta hidrogeno peroxidoko irakuzketa (8. irudia).
3. Anestesia (12. irudia):
 - Anestesia topikoa, kotoi-bolatxoa eta pintzak.
 - Xurgatzeko xiringa eta intraligamentosoa.
 - Anestesiarako karpulea (hodi-uzkurtzailearekin edo barik, historia klinikoaren arabera).
 - Orratzak: tronkularra, periapikala eta intraligamentosoa.
4. Rx plaka eta aurreko eta atzeko hortzen paralelogilea (9. irudia).
5. Kolore-gida (konpositezkoa edo zeramikazkoa / Vita) (29. eta 30. irudiak).



29. irudia: konpositezko kolore-gida



30. irudia: Vita kolore-gida

6. Erabateko isolamendua (31. eta 32. irudiak):
 - Gomazko dikea.
 - Gomazko dikearen zulagailua.
 - Zigilua.
 - Young-en arkua.
 - Grapa-euskarria.
 - Grapak.
 - Hortzetako haria.
7. Isolamendu erlatiboa (31. irudia):
 - Kotoi-biribilkiak (erabateko isolamendua ezin bada).



31. irudia: erabateko isolamendurako eta isolamendu erlatiborako materiala (kotoi-biribilkiak)



32. irudia: gomazko dikerako zigilua

8. Betetze-kita (33. irudia):

- Pintzak.
- Koilaratxoa.
- Leungailua.
- Artaziak.
- Konpositerako zanpagailuak eta espatulak.
- Dycaleroa.



33. irudia: betetze-kita

9. Biragailuak: turbina eta kontra-angelua (34. irudia).



34. irudia: turbina eta kontra-angelua

10. Turbinarako fresak (35. irudia):

- Diamantatu borobila.
- Diamantatu udare-formakoa.
- Tungsteno karburozko udare-formakoa.
- Arkansasekoa.
- Ahizto-ahoa. } Diamantatuak uztai gorri edo horia.
- Rugby-baloia.
- Xamfer fina

11. Kontra-angelurako fresak (35. irudia):

- Tamaina ezberdineko fresa borobilak.
- Leuntzeko diskoak eta mandrila.
- Leuntzeko goma-puntak.



35. irudia: turbinarako eta kontra-angelurako fresak eta leuntzeko tresneria

12. Matrizeak:


Aurreko taldea (36. irudia): azetatoa, tefloia.



36. irudia: aurreko talderako matrizeak

Ondorengo hortzak (37. eta 38. irudiak):

- Matrize sektorialak (Palodent® kita).
- Automatrix ®(kita) eta finkatzeko tresna.



37. irudia: matrize sektorialen kita eta plastikozko falkak



38. irudia: Automatrix® matrizeen kita eta zurezko falkak

13. Falkak (zurezkoak edo Palodent® kiteko plastikozkoak) (37. eta 38. irudia).

14. Konpositez buxatzeko tresneria (39. irudia):

- Sodio hipokloritoa.
- Kotoizko bolatxoak.
- % 37 azido ortofosforikoa.
- Itsasgarria.
- Pintzelak/Txotxak.
- Konposite: karpulea edo pistola.
- Argiz polimerizatzeko lanpara.
- Leuntzeko tira interproximalak.
- Ausiki-papera (urdina eta gorria).
- 12 zenbakiko bisturi-orria eta kirtena, aurreko betetzeak leuntzeko.


3. MATERIALEN ZERREDA ETA OHIZKO TRATAMENDUEN PROTOKOLO KLINIKOA



39. irudia: konposite bidezko obturaziorako materiala

15. Zutoin bat jarri behar bada (40. irudia):


- Zutoinen kutxa (beira-zuntzezkoak).
- Gomazko talkak.
- Fresak (Gates-Glidden® (kerr) edo kutxa berezkoak).
- Paperezko puntak.
- Zemento autopolimerizagarria (zutoinaren arabera).



40. irudia: beira-zuntzezko zutoinak eta zementoa

16. Muinetik hurbil egonez gero edo muin-esposizioa izanez gero:

- Zeharkako estaldura: itsasgarri autograbatzailea, kaltzio hidroxidoa, beiraren ionome-roa edo konposite fluidoa (41. irudia).
- Estaldura zuzena: bonding, kaltzio hidroxidoa, MTA, biodentine (42. irudia).
- Nahasteko lauza, zementurako espatula, kaltzio hidroxidoa jartzeko tresna edo pistola (materialaren arabera).



41. irudia: zeharkako estaldurarako materiala



42. irudia: estaldura zuzenerako materiala

17. Inkrustazioa / zeharkako betetzea eginez gero (43. irudia):

- Barrunbea prestatzeko fresak (obturazio eta zizelkatze fresak).
- Azido ortofosforikoa.
- Itsasgarria.
- Glizerina.
- Argiz polimerizatzeko lanpara.
- Azpilak.
- Silikona astuna eta jariakorra.
- Kolore-gida.
- Behin-behineko obturaziorako materiala (Fermit®, Telio®, clipf®).
- Leuntzeko marrusketa edo kopa.
- Hortzetako haria.
- Gomazko dikea.
- Tefloia.
- Azido fluorhidrikoa.
- Silanoa.
- Zemento autopolimerizagarria edo duala.



43. irudia: inkrustazioak egiteko materiala

3.3.2. Protokolo klinikoa: tratamendu-sekuentzia

Pazienteak Odontologia Klinikako dagokion baimen informatua sinatuko du.

Obturaziorako prozedura

1. Erabili beharreko obturazio-materialaren kolorea aukeratu, eta, beharrezkoa izanez gero, argazkiak atera.
2. Anestesia jarri.
3. Tratatu beharreko hortzaren eta albokoen erabateko isolamendua. Zigilatze on bat lortzeko, hortzen artean hortzetako haria pasatu eta dikea inbertitu behar da.
4. Hasieran biragailuekin barrunbea garbitu behar da (udare-formako karburo tungstenozko edo diamantatutako fresekin, edota diamantatutako fresa biribilekin eta kontra-angeluduneko tungstenozko karburo fresekin). Horren ostean, eskuz garbitu beharko dugu dentina-koilaratxoekin.
5. Barrunbe-zoruaren estaldura beharko balitz, horretarako produktua jarriko dugu, beti fabrikatzailearen argibideei jarraituz.
6. Azido ortofosforikoarekin (% 37) esmaltea 30 segundoz grabatuko dugu, eta dentina 15 segundoz.
7. Urez garbitu 60 segundoz, eta lehortu.
8. Kasu bakoitzerako hautatutako itsasgarria aplikatu (fabrikatzailearen jarraibideak bezela), eta argia aplikatu (fabrikatzaileak gomendatutako denbora).
9. Konposite zati txikiak gehitu behar dira, aldi bakoitzean 40 segundoz polimerizatzen dugularik (denbora lanpararen potentziaren arabera), anatomia egokia lortu arte.
10. Oklusioa doitu: erlazio zentrikoan (EZ), gailur arteko kontaktu gehienekoko posizioan (GKGP), alboetaranzko eta aurreranzko mugimenduetan kontaktuak egiaztatu, kolore ezberdinetako ausiki-paperarekin.
11. Fresekin eta leuntzeko goma eta tira interproximalekin, obturazioa lautu eta leundu.
12. Beharrezkoa denean, hortzetako hariarekin egiaztatuko ditugu hortz-tarteko kontaktu-puntuak.
13. Tratamendu osteko gomendioak eman, behar izanez gero (ikus 4.3. saila).

Zutiko batekin berreraikuntza egiteko prozedura

1. Erabili beharreko obturazio-materialaren kolorea aukeratu, eta, beharrezkoa izanez gero, argazkiak atera.
2. Tratatu beharreko hortza eta albokoak erabat isolatu. Zigilatze on bat lortzeko, hortzen artean hortzetako haria pasatu eta dikea inbertitu behar da.
3. Hasieran, biragailuekin garbitu behar da barrunbea (udare-formako tungsteno karburozko edo diamantatutako fresekin, edota diamantatutako fresa biribilekin eta kontra-angeludun tungsteno karburozko fresekin). Horren ostean, eskuz garbitu beharko dugu dentina-koilaratxoekin.

4. Hortz-kanalen sarrera kokatu behar dugu lehendabizi; horretarako, gutapertxa bilatu. Hortzak kanal bat baino gehiago dituenen, bat aukeratu behar dugu:
 - a) Goiko hagin eta haginaurrekoen mihialdeko erroak.
 - b) Beheko hagineta urruneko erroak.
5. Aukeratutako kanalaren luzera frogatu, eta horren 2/3ak kalkulatu.
6. Gutapertxa kentzeko erabiliko ditugun fresak aukeratu (Pesso edo Gates motakoak), eta gomazko talka jarriko diegu kanalaren 2/3en luzeran; hots, beherago joan ez daitezzen.
7. Rx bat aterako dugu, eta horrekin bi gauza egiaztatuko ditugu: gutapertxa-hondakinik ez gelditzea zutikoa jarriko dugun aldean, eta erpineko azken herenean behar adina material uztea.
8. Jarriko dugun zutikoaren fabrikatzailearen argibideak jarraitu.
9. Zutikoaren lodiera aukeratu, eta dagokion berezko fresa hartu. Gomazko talkak jarri behar den luzeran, eta, postea ondo sartzen denean, Rx batekin bere egokitasuna egiaztatu.
10. Beharrezkoa denean, posterako hutsunean itsasgarri/zemento autograbantea jarri, polimerizatu barik. Fabrikantearen argibideak jarraitu.
11. Kanalean zementu autopolimerizagarria jarri, zutikoa sartu, eta 40 segundoz polimerizatu. Fabrikantearen argibideak jarraitu.
12. Zutikoa koroa klinikoaren altueran moztu.
13. Matriseak eta falkak jarri berreraikuntzarekin jarraitzeko.
14. Azido ortofosforikoarekin (% 37) esmaltea 30 segundoz grabatuko dugu, eta dentina 15 segundoz.
15. Urez garbitu 60 segundoz, eta lehortu.
16. Kasu bakoitzerako hautatutako itsasgarria aplikatu (fabrikatzailearen jarraibideak betez) eta argia aplikatu (fabrikatzaileak gomendatutako denbora).
17. Konposite zati txikiak gehitu behar dira, aldi bakoitzean 40 segundoz polimerizatzen dugularik (denbora-lanpararen potentziaren arabera), anatomia egokia lortu arte.
18. Oklusioa doitu: erlazio zentrikoan (EZ), gailur arteko kontaktu gehieneko posizioan (GKGP), alboetaranzko eta aurreranzko mugimenduetan kontaktuak egiaztatu kolore ezberdinetako ausiki-paperarekin.
19. Fresekin eta leuntzeko goma eta tira interproximalekin, obturazioa lautu eta leundu.
20. Beharrezkoa denean, hortzetako hariarekin egiaztatuko ditugu hortz-tarteko kontaktu-puntuak.


Inkrustazioa egiteko prozedura



44. irudia: overlay

1. HITZORDUA: ZIZELKATZEA, INPRIMAKIA ETA BEHIN-BEHINEKO OBTURAZIOA JARTZEA

1. Prestaketaren diseinua zehaztu; horretarako, kontuan hartu behar da:
 - a) Inlay, onlay edo overlay bat izango den (44. irudia).
 - b) Errestaurazioaren materiala (konposite edo zeramika), barrunbearen forma beti kanporatzekoa. Beraz, barrunbea garbitu ostean, barrunbeko eremu atxikitzaileak estali edo buxatu behar dira, kanporatzeko.
 - c) Barrunbeko zoruak supragingibala izan behar du, eta, hala ez bada, konpositearekin buxatu behar da maila horretara iritsi arte.
 - d) Gailurren loditasuna kontuan hartu behar da; horren arabera erabakiko dugu gailur-babesa egin beharra dagoen. Kasu horietan, murrizketa oklusalak gutxienez 1 mm-ko lodiera izan behar du.
2. Kolorea hartu.
3. Zizelkatzea egin (45. irudia):



45. irudia: onlay baten zizelkatzea

- a) Fresa diamantatuak, formak: lama, ahizto-ahoa, errugbia, konikoa. Lodiera: kolore gabekoa, uztai gorria eta uztai horia.
- b) Prestaketa leundu, ertz zorrotzik ez geratzeko: Arkansas fresak, leuntzeko gomak...
4. Dentina zigilatzea, hortzetako dentina-eremuak airean badaude: azido ortofosforikoarekin (% 37) dentina 15 segundoz grabatu + itsasgarria + glizerinarekin polimerizatu.
5. Silikona astun eta jariakorrarekin.
6. Behin-behineko obturazioa jarri: Fermit®, Telio®, clipf® edo antzekoa.

2. HITZORDUA: INKRUSTAZIOA ZEMENTATU (46. irudia)



46. irudia: onlay bat ereduari jarrita

1. Behin-behineko obturazioa kendu, eta garbitu kopa batekin.
2. Inkrustazioaren froga lehorra:
 - a) Inkrustazioa barrunbean saiatu, doiketa eta kontaktu-puntuak egiaztatu.
3. Froga hezea:
 - a) Inkrustazioak 1,5 mm-ko lodiera baino gutxiago badauka, zementu fotopolimerizagarriaren froga-oreekin kolore desberdinak proba ditzakegu, alboko hortzen antzekoena aukeratzeko.
4. Zementazioa (47. irudia):




47. irudia: onlay baten zementazioa

- a) Gomazko dikea jarri.
- b) Alboko hortzak tefloiarekin isolatu.
- c) Hortzaren prestaketa:
 - i. Esmaltea 30 segundoz grabatuko dugu, eta dentina 15 segundoz.
 - ii. Itsasgarria jarri, baina ez polimerizatu.
- d) Inkrustazioaren prestaketa:
 - i. Portzelana:
 - 1. Azido fluorhidrikoarekin grabatu:
 - a. Litio disilikatua: % 5era 20 segundo.
 - b. Feldespatika: % 10era 2 minutu.
 - 2. Garbitu eta lehortu.
 - 3. 60 segundo grabatu azido ortofosforikoarekin.
 - 4. Garbitu eta lehortu.
 - 5. Silanoa, eta 30-60 segundoz aire beroarekin berotu.
 - 6. Itsasgarria polimerizatu gabe.
 - 7. Aireztatu.
 - 8. Zementu fotopolimerizagarria edo duala, inkrustazioak 1,5 mm baino lodiera gutxiago izatearen arabera.
 - ii. Konpositea:
 - 1. 60 segundo grabatu azido ortofosforikoarekin.
 - 2. Garbitu eta lehortu.
 - 3. Silanoa, eta 30-60 segundoz berotu.
 - 4. Polimerizatu gabeko itsasgarria.
 - 5. Aire.
 - 6. Flow/konposite beroa edo zementu duala.
- 5. 3 segundoz masailaldetik eta mihialdetik fotopolimerizatu.
- 6. Zementuaren hondakinak kendu.
- 7. Inkrustazioa bere lekuan sakatzen dugun bitartean, kontaktu-puntuak egiaztatu eta hortzen arteko hondakinak garbitu.
- 8. Masailaldetik, mihialdetik eta oklusaletik 20 segundoz fotopolimerizatu.
- 9. GKGP, alboetaranzko eta aurreranzko gidetan oklusioa doitu.

3.4. ENDODONTZIA (MUIN-KANALETAKO TRATAMENDUA)

3.4.1. Materiala


1. Miaketa-kita (ispilua + zundak) (7. irudia).
2. Adur-zapia, xurgagailua, ur-aire eiektorea, betaurrekoak, oinetako estalkiak, txanoa eta hidrogeno peroxidoko irakuzketa (8. irudia).
3. Anestesia (12. irudia):
 - Anestesia topikoa, kotoi-bolatxoa eta pintzak.
